

<b>IRUDIA, LOGOTIPOA, MARKA, SINBOLOA...</b>	
<b>GCH-REN ALDAGAIA</b>	<b>Emozioak adieraztea eta erregulatzea</b>
<b>IZENBURUA</b>	<b>Familia-testuinguruaren zeregina haur emozioen erregulazioaren garapenean</b>
<b>EGILEAK</b>	Sheffield Morris, A.; Silk, J.; Steinberg, L.; Myers, S. eta Robinson, L.
<b>ARGITALPENA</b>	Social Development, 16, 361-388 DOI10.1111/j. 1467-9507.2007.00389.x.
<b>URTEA</b>	
<b>LABURPENA</b>	Artikulu honek gaurko literatura zientifikoa berrikusten du, honako bi aldagaion arteko loturari buruz: familia-testuinguruaren osagarrien eta haur zein nerabeen emozio-erregulazioaren (EE) artean. Berrikuspena, familiaren eraginaren eredu hirukoitzean antolatzen da. Batetik, planteatzen du haurrek emozioen erregulazioa ikaskuntzaren, modelatzearen eta gizarte-erreferentzien bitartez ikasten dutela. Bigarrenik, emozioen edota emozioen erabileraren gaineko hazkuntza-praktika espezifikoek eragina dute emozioen erregulazioan. Hirugarren, emozioen erregulazioan eragina du familiaren emozio-giroak, hazkuntza-tankera, atxikimendu-harreman eta gurasoen arteko harremanen bitartez. Haurraren ezaugarriek, esaterako emozio-negatibotasunak edota generoak, emozioen erregulazioan eragina dute. Era berean, sozializazio praktikak aldatzen doaz haurrak nerabe bihurtzen diren heinean, eta buru-osasunaren moduko gurasoen ezaugarriek eragina dute emozioen erregulazioaren sozializazioan.
<b>AURKIKUNTZEN INPLIKAZIO PRAKTIKOAK</b>	Berrikuspenean aurkitutako inplikazioek erabilgarritasuna izan dezakete gurasoen entrenamendu pertsonalizatua diseinatzeko, emozioen adierazte eta erregulatzearen inguruan gurasoek gaitasun praktikoak eskura ditzaten l